



Ordiziako Udala
(Gipuzkoa)

**VI ARTE PLASTIKOEN
GOIART 2012-ORDIZIA SARIA.
OINARRIAK.**

Arte plastikoak sustatu eta zabaltzeko Ordiziako Udal Kultura saila egiten ari den ekintzen artean, honako deialdia antolatu du: VI. arte plastikoan **Goiart 2012-Ordizia Saria**. Hona hemen oinarriak:

1.- Euskal Herrian jaiotako edo bertan bizi diren artistek parte har dezakete. Bertan bizi direnek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, gutxienez urtebete bertan bizitzen daramatela egiaztatu beharko dute.

2.- Egile bakoitzeko, gehienez, bi lan onartuko dira. Inolako baldintzarik gabe, ez tamaina, teknika, aurkezpen, gaia...eta abarri dagokionean. Muntatzeko jarraibide bereziak behar izanez gero, lanarekin batera bidali beharko dira.

3.- Sariak. Hiru sari emango dira:

Lehen saria: 3.000 euro

Bigarren saria: 1.500 euro

Hirugarren saria: 900 euro

Goierriko artista baten lanari saria: 600 euro. Goierriin jaio edo bizi den artista baten lana sari dezake epaimahaiak (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama, Zerain)

Saritutako lanak Ordiziako udalarenak izango dira. Bestalde, saritutako artisten edo Epaimahaiak aukeratutako artisten erakusketa antola dezake Kultura Sailak, Barrena Kultur Etxearen eskutik, zehaztu gabe dagoen garaian.

Emandako sariak direla eta, ez da diziplina artistikoen zatiketarik egingo.

4.- Arte plastikoekin zerikusia duten adituek osatuko dute epaimahaia.

5.- Onarpen-epea. 2012ko azaroaren 28tik abenduaren 11 bitarte. Astelehenetik ostiralera bidal daitezke edo eskura ekar daitezke lanak, goizeko 10etatik 13era honako egoitzan:

Barrena Kultur Etxea
Nikolas Lekuona Plaza z/g
20240-ORDIZIA
Tf. 943 80 56 30



Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

6.- Aurkezteko modua.

Lanarekin batera kartazal itxia ekarri beharko da, honako agiri hauekin:

- a) Nortasun Agiriaren kopia.
- b) Artistaren datuak eta curriculum.
- c) Lanen argazkiak.
- d) Azken urtebetean Euskal Herrian bizi dela egiaztatzen duen agiria.
- e) Norbera eta lanari buruzko argibideak (curriculum, ibilbidea, memoria, etab...)

Kartazalaren kanpoan egilearen izena jarri beharko da. Dokumentazio hori guztia Ordiziako Udalarena izango da ordutik aurrera eta Barrena Kultur Etxean gordeko da.

Lana bidali eta itzultzeko garraio-asegurua eta gastuak partehartzaile bakoitzak ordaindu beharko ditu. Lehiaketara ekarritako lanek izan ditzaketan kalte edo galerak ez dira antolatzaileen erantzukizuna izango.

Behar bezala babestuta egon beharko dute lan guztiak, baita eskura ekarritakoak ere.

7.- Lanak eramatea: 2013ko urtarrilaren 14tik 31a bitarteko epea emango da lanak eramateko, eman diren toki berean, eta ordu eta baldintza beretan. Artistak berak izango du ematerakoan eta eramaterakoan egin beharreko garraioaren ardura, baita bilgarria jarri eta kentzeko ardura ere. Gastu horiek ez ditu inola ere Ordiziako Udala Kultura Sailak bereganatuko. Behin lanak eramateko epea igarotzen denean, Barrena Kultur Etxean dauden obrak Ordiziako udalarenak izango dira. Beraz, egileek jabetza eskubideak galduko dituzte, jabetza intelektualaren Legeaz markaturikoak izan ezik.

8.- Ekarritako lanen jendaurreko erakusketa. Lan horiek guztiekin erakusketa egin daiteke 2012ko abenduaren 20tik 2013ko urtarrilaren 4ra arte. Ekarritako lanak asko izango balira, horietatik batzuk aukeratuko lituzke epaimahaiak erakusketarako.

9.- Obra ekartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela esan nahi du, eta horietara, eta epaimahaiaren erabakietara makurtzen dela.